

Zuhotza  
uskara elkarrean  
deba

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 170. alea - 2013ko urtarrila



**Aizkora hotsak  
urte berriko ferian**





# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



# ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



# ARKATZA

## Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA  
943 029 186



# URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# LENTZERIA



# MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

## zugandik zugana

# haizea

estetika

Tif. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik

# BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pínxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

# Kafetegia

Foruen Plaza  
Tel.: 943 191 035  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# Calbeton

JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# L.A.

## LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**

Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oiartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**

Ander Salegi

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oiartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikunak. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILERAK**



**LAGUNTZAILERAK**



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



Ander Salegi



**KOLABORAZIOA.**

Mikel Aizpurua,  
"Herri hutsa". **05.**

**KRONIKA.**

Zero Feria iruditan, Urrezko Aizkora eta bestelako desafioak... **06-07.**

**ALBISTEA.**

Literatur lanak aitita-amamentzat; San Silbestrea...

**08-09-10.**

**BERRIKETAN GAZTEA.**

Kanbora bidaia, denborapasak... **11-14.**

**ALBISTEA.**

"Zubeltzu" IV. Bertso-Paper Sariketa. **15.**

**LABURRAK.**

Gaztelekua gabonetan, Patxi Aldabaldetrecu beka, muralak Itur kalean...

**ZERBITZUAK. 18.**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN**



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Korrika 18 Eman Euskara Elkarri

Lagun euskaltzaleok:

Jakingo duzue, aurtan Korrikaz gozatze-ko aukera izango dugu berriz ere. 2013ko martxoaren 14an Andoaindik abiatuko da Korrika 18, martxoaren 24an Baionara heltzeko.

Debatik martxoaren 23an, goizeko 8:30ak aldera, igaroko da eta dagoeneko Korrika Batzordea osatze aldera deialdiak luzatu dira. Gutun honen bitartez, Korrikan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Jakin badakigu denok ez ditugula aukera berdinak gure ekarpenak egiteko, eta horregatik, hain zuzen ere konpromisorik gabe, batzordeetara etor zaitezten eskatzen dizuegu. Bilkuretan entzundakoaren arabera erabakiko duzue, gero, zuen ekarpena zein izan daitekeen; eta, inolako aukerarik izango ez bazenute ere, Korrika geure herrian izango dela ezagut eta zabal dezazuen da gure nahia. Adi egoteko deia luzatzen dizuegu. Animatu eta parte hartu!!!

*Zuhatza Euskara Elkartea*



## Ezten Giro Taldea bateria-jole bila dabil, animatzen?

Kaixooo!!

Ezten Giro Taldeak indartsu eman nahi dio hasiera urte berriari, eta taldean kide berri bat hartzea erabaki du.

Orain arte hiru neska dabilta trikitixa, panderoa eta gitarra hartu eta batetik bestera, baina baterista batek taldea asko alaituko duelakoan daude.

Bateria-jolea baldin bazara, edo bateria-joleren bat ezagutzen baduzu abiatu eta jarri gurekin harremanetan.

Kontaktuan jartzeko idatzi gure e-mailera: [eztengiro@hotmail.com](mailto:eztengiro@hotmail.com) edo idatzi mezu pribatu bat Facebook-en dugun kontuan (Ezten Giro Erromeri Taldea).

Eskatzen dugun bakarra baterijolea izatea eta erromerietan jotzeko gogoia izatea da!!

Ondo izan eta eskerrik asko,  
*Ezten Giro Taldea*

## Eskerrik asko!!

Urtero bezala, aurtan ere Saharara bidaltzeko janari bilketa egin dugu udaletxe azpian eta, herrian izandako erantzunari esker, guztira 1.820 bat kilo bildu ditugu. Ez da, ez, kopuru makala; krisi ekonomikoa bizi dugun arren, herritarrek oso ondo erantzun baitiote gure deialdiari. Lerro hauen bitartez, beraz, eskerrak eman nahi dizkizuegu guzti-guztiori, zuek gabe ez garelako ezer!

*Debako Saharautz Elkartea*



## ARGAZKI ZAHARRA

### Aizkolaritzan, 1930eko San Nikolasetan



Iturria: "Egun Zaharretako Deba" liburua (1977ko otsailean kaleratua).

"Bereziki Lasturren eta Itziarren, gure kirol guztiak oso gogotsu egin dira. Kirol batzuetan zenbait indar-gizon lehen tokiak beteaz bereiztu dira. Nahiz eta debarrek ez duten toki garrantzirik bete aizkolaritzan, ohiturazko kirola dugu hori ere.

Lasturko enparantzan San Nikolas festak zirela eta 1930. urtean ikus genitzake, ezkerretik eskuinera: Ignacio Salegui "Sustraixa" izan daitekeena, Elorza "Kortaberri", Fermin Salegui "Zelai-luze", Jose Zulaica "Ansorregui", Felipe Urbieta "Usarroa" aguazil jantzita eta Jose Maria Urteaga "Ziaran-txiki". Elorza eta Urteaga aurkariak dira".

Luis Garatek emandako irudia.





# Mikel Aizpurua

## HERRI HUTSA

Kaliforniako Ross Ching zine zuzendariak proiektu bitxia gauzatu du: Amerikako hiriak filmatu ondoren, irudietatik jendea ezabatu du. Leku hutsak besterik ez dira azaltzen 3 minutu eskaseko filmeetan (<http://ross-ching.com/empty-america>). Lekuok izena badute: San Francisco, New York, Seattle... Irudi politikak dira, argazki kamara digitalen aurreko garaian, turistek postaletan erosten zituzten haietakoak. Etxebizitzak zaharrak eta berriak; zubiak, etorbi-de zabalak... guzti-guztiak gizakiak eraikiak hutsik agertzen dira Ross Ching-en filmeetan.

Unibertsitate garaiko lagun donostiar bat etorri zait gogora. Hark egun batez Donostia berretzat bakarrik nahi zuela esaten zuen. Jenderik gabeko Donostian ibili nahi zuen beste inor ez zegoela jakinda. Amara berriko bere etxetik irten eta Urbieta kale zabalean barrena Kontxara abiatuko omen zen. Kaleen erdi-erdiatik ibiliko zen, kotxeek oinezkoen galarazi ohi dioten esparruan. Amets bitxia iritzi nion nik. Bakardade hura gozagarri izanda ere, ez zuen luzaroan gozatuko nori kontatu izan ezean.

Gure desioak kontuz aukeratu behar ditugula dio esatera ezagun batek, guk nahi dugun hori "lor genezake eta". Hirian bakar-bakarrik ibiltzea amesgaiztoa izan daitekeela erakutsi zigun Alejandro Amenabar zinegileak "Abre los ojos" pelikulan.

Amets edo amesgaizto, ni Ametsekin (Arzallusekin) bat nator. BEC-eko hitzaldi gogoangarriko (<http://www.youtube.com/watch?v=-pgw9DSFUQU>) pasarte bat duzu honako hau: "Nire herria ez da lurra, jendea baino. Lur jendezko bat da ene herria. Ama lurra dugu bizi iturri, aberria da arbasoen sorterrria baina herria da jendearen bizilekua. Eta lekua ez da lurra bakarrik. Pertsona bera ere leku da, bere denbora mugatua da bere bizileku bakarra eta

gure baitan zabaltzen den leku hori da enetzat herria. Nahiz lur bati errotua egon, deserrotzea ere posible da. Jende horrek ez dio herri izateari utziko ezta deserrira daramatenean ere".

Deba ere Deba da. Herritik kanpo gaudela "Deban bizi gara" esatean, solaskideak erantzungo digu: "A! Deba! Ezagutzen dut". Eta lekuen enumerazioa egingo du gero: "Elizako plaza, alameda, hondartza...". Guri gustatuko zaigu eta irribarre txikia isuriko zaigu. Ezagutu berriarekin zerbait badugula sentitzen dugu. Beste batzuetan, ordea, "nik ezagutzen dut Deban halakoa..." esaten digu eta bere lagun debarraren familia nahiz laguneren aipamen luzea egingo digu geuk ere ezagutuko dugun esperantzaz. Horrelakoetan estuago sentitzen dugu ezagutu berria.

Herria pertsonak baitira. Ni Deban bizi naizela esatean, esaten dut Galtxaneko Olatzek ematen didala goizero ogia, Arkatzaneko Gillermo edo Maria Luisak egunkariak luzatzen dizkidatela, Buruzurineko Karmelerengana joan ohi naizela gosaltzera, Lizasoneko Elgarrek, Esterrek eta Joseantoniok saltzen didatela jana, Asierrek "itsuen" itxaropena, Faluk agur alaia... eta bistaz baino ezagutzen ez ditudan pertsona asko ikusten ditudala egunero.

Horregatik, Istanbul urruti hartako kale batean "Deva" izena (umetan irakurtzen genuen moduan idatzia) irakurtzeak argazki bat ateratzeko adinako ilusioa egiten badigu ere, gehiago emozionatzen gara Deban ikusi bai, baina agurtzeko adinako ezagutzarik ez dugun bikote batekin topo egitean. Pertsonak egiten baitute herria. Ez, nik ez dut nahi inor ez dagoen Deban ibiltzerik; Deba debarrak gabe ez baita Deba.







Zoro  
Feria 2013,  
Iruditan





## Ferian banatutako sariak

Urte berriko ferian, Txillarre baserriko Peio Rubiok irabazi zuen **barazki lehiaketa** -iaz ere berak lortu zuen lehenengo postua-. Elgoibartarrak 300 euroko saria eskuratu zuen, Alfonso Gonzalez, Ignacio Javier Larrañaga eta Joseba Elosuak osatutako epaimahaiak hala erabakita. Bigarren eta hirugarren postuan, berriz, Itziarko Doniene-Berri baserriko Miriam Arrizabalaga eta Arizaga baserriko (Soraluze) Ezoz Etxeberria gelditu ziren, hurrenez hurren. Eta akzesit berezia Bolungarai baserriko (Berriz) Santos Duñabeitiak eta San Pelaio baserriko (Ermua) Jose Lonbidek lortu zuten.

**Frutei** dagokienez, lehenengo saria Mutrikuko Sagarmina baserrira eraman zuen Antonio Iparragirrek -posturik onena aurkezteagatik ere bera saritu zuten-; bigarren saria Maria Etxezarretari (Gabiriako Agerre-Berri baserria) eman zioten, eta hirugarren saria hutsik gelditu zen.

Doniene-Berri baserriak jaso zuen herriko posturik onenari eskainitako saria (150 euro). Eta, bestetik, Beliosoro Goikoa baserriko M<sup>a</sup> Isabel Landa ere saritu zuen epaimahaiak, "hobekien zaindutako basoa" berea zelakoan.

**Gazta lehiaketako** epaimahai Joxe Ramon Agiriano, Mireia Alonso, Jesus Artola, Josu Mugerza, Pili Manterola eta Xabier Osak osatu zuten. Lehen saria (350 euro) Elgoibarko Mauxitza baserriko Jesus Ansolari eman zioten; bigarren saria, Olaberriko Aizpea Elkarteari; eta, hirugarrena Azpeitiko Ardi Gazta kooperatibari. Andutzene baserriko M<sup>a</sup> Jesus Gurrutxaga izan zen herriko lehena.

Debarreneneko **Ezti lehiaketako** epaimahaiak, bestalde, hiru sari banatu zituen: Arrasateko Garbiñe Aramendi (140 euro), Aramaioko Jose Lonbide eta Oñatiko Eneko Lezeta dira hiru sarituak.



## Urrezko Aizkora eta beste zenbait desafio Aldats pilotalekuan



Nazabal-Zubiaga bikotea izan zen garaile Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketan. Zoro Feri egunean jokatu zen, hain zuzen, Urrezko Aizkora lehiaketa eta Egoitz Atutxak eta Ugaitz Mugertzak osatutako bikoteak minutu bat eta hamar segundo gehiago behar izan zituen 13 enbor sei modalitatetan mozteko. Garaileek 21 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten proba hori egiteko eta zuzenean sailkatu ziren txapelketa horretako finalurrerako.



*Irudiak: Ander Salegi*

## Lopetegiren idiak, garaile aurten ere

Urteberriko idi-proben XXXVIII. edizioan Iñaki Lopetegi (Billela) izan da garaile. Bere idiek burutu dute marka onena, 48 plaza, hiru zinta eta 2,48 metro ibilita.

Billelara joan dira bigarren eta hirugarren sariak ere, Luberri eta

Mendiperen idiek egindako lanari esker.

Urtarrilaren 1ean hasi eta 14an amaitu dira aurtengo idi-probak. Guztira bederatzita jardunaldi ospatu dira Euskal Jolas pilotalekuan eta 30 bat bikote ibili dira lehiatzen.

# Literatur lanak aitita-amamentzat

Berrogeita hamabi lan aurkeztu dituzte Arbil Elkarteak antolatutako lehiaketara



Ander Salegi

Beste behin ere, Arbil Jubilatutako Elkarteak literatur lehiaketa antolatu du Debako DBHko 1. mailako ikasleen artean. Aitona-amonei idatzitako 52 eskutitz "eder" aurkeztu dituzte ikasleek, eta Lukax Dorronsorok lagundu du, oraingoan ere, haien lanak irakurri eta testurik txukunenen aldeko erabakia hartzen. Hiru lan saritu ditu epaima-

haiak, eskutitz "bikainenak" direlakoan. "Badakizue, bizitza errealaz gainera, beste bat ere bizi dugu gure barne isilean: fantasiatzko bizitza. Gehienetan geuretzat bakarrik bizi ohi dugun eremua dugu fantasiarena; baina..., idazleek eta kontalariak badakite horretaz ere aritzen. Gure talde honetan badira horietakoak eta guk hiru aukeratu ditugu, ondo

kostata, hamar baten artean", adierazi du epaimahaiak. Bada, "fantasiari hitza ematen egokien asmatu duten" hiru eskutitz idazleen izen-abizenak hauek dira (orden alfabetikoan): **Beñat Escudero, Julia Ron eta Janire Torronteras**. Zorionak hiruroi!

Orrialde hauetara ekarri ditugu haien idazlanak:

## Aitxixa Joaquini

Gure aitxixa Joaquini:

Karta hau ezagutu nahi zaitudalako idazten dizut, ni jaio orduko joanda baitzeunden, zerura alde egin zenuelako, ni mundura iritsi aurretik. Zure ondoan egon nahi dut. Nire sentimenduak askatu nahi ditut, ez baitut aukerarik izan, baina iritsi da ordua: Asteazkena, abenduaren 12a, eskolan nago, azken klasea da eta irakasleak aitona-amonei eskutitz bat idazteko esan digu. Nik zu aukeratu zaitut, hori bai, niretzat aitxixa Joaquini zara, ez aitona.

13:40 dira eta hasi naiz burura etortzen zaidana idazten. Nire lehen hitzekin batera, hasi dira aurreneko malkoak masaileko azal leunetik behera jausten, hasi dira malkoak orria bustitzen. Bihotzean sartuta dudana arantza atera nahi dut, eta modu bat hau izan daiteke, arantza horrek min handia egiten baitit.

Badakit ez nauzula sekula ezagutu, ezta nik ere zeu. Baina nahiz eta ez ezagutu, nire aitxixa zarela kontatu didate etxeok. Askotan hitz egin didate zutaz, dakidan guztia beraiek kontatutakoagatik dakit. Argazki batzuk ere badituzte zure zarenak, eta bat, nire gustukoena, logelan itsatsia daukat.

Pena handia dut, ezin izan zaitudalako ezagutu, baina seguru nago beste edozein aitona baino dibertigarriagoa izango zinela.

Familiak asko sufritu zuen gure ondorengorik joan zenez, orain ere tarteka tristura sartzen zaigu, arantza horrek ziztadak egiten dizkigu, baina badakigu beti izango zarela gure bihotzean.

Tarteka zerura begiratzen dut, eta zugarik gabe, nire buruari ondo egongo zarela esanez, horrek asko lasaitzen bainau. Gauetan ikusten ditudan izarretako bat zeu zarela pentsatzen

dut, eta lotara joan aurretik, muxu potolo bat bidaltzen dizut gauero. Ni hiltzen naizenean, espero dut elkar ikustea eta hobeto ezagutzea, gau eta egun elkarren ondoan egotea.

Eskutitz honetara, malko ugari erori dira jada, eta arantza ateratzen ari da poliki-poliki, min gutxiago ematen dit, baina badakit min pixkat beti edukiko dudala, eta zuk hainbeste urtetan zaindutako etxeok.

Espero dut karta hau zuk jasotzea, eta irakurritakoan ni zure biloba naizela jakitea. Honez gero sentimenduak askatu ditut eta gero eta lasaiago nago. Amets bakarra dut orain buruan: zu ikusten zaitudala nire ondoan.

Azken batean esan nahi dizudana, ASKO-ASKO MAITE ZAITUDALA da. Zauden lekuan zaudela, muxu handi bat:

*Beñat Escudero*





## Aitona maitea

Kaixo aitona maitea:

Janire naiz, aspaldi gaude ikusi gabe. Faltan botatzen zaitut eta asko maite zaitudala esan nahi dizut. Espero dut ondo egotea, orain zauden lekuan. Zure etxera bazkaltzera joaten nintzenean, zu han egoten zinen, oporretan zu bisitatzera joaten nintzenean, zu hor zeunden, etxe aurrean, niri itxaroten irribarre batekin ahoan. Oso pozik jartzen nintzen zu ikusterakoan, nire zain, urduri-urduri. Autotik irten, eta korrika batean joaten nintzen zuri besarkada handi bat ematera.

Beti ni apoiatzen ibiltzen zinen, nire ondoan aholkuak ematen, une on eta txarretan. Oso ondo egoten ginen

biak batera, baina orain dela urte bat, nire bizitzako egunik txarrenak eduki nituen. Eskolako txirrinak jo zuen, eta etxera abiatu nintzen poz-pez, baina, bat-batean, giltzak hartu, etxeko atea ireki, eta ama eta aita aurkitu nituen egongelan, eta ea zer gertatzen zen galdetu nuen. Nire amari begiratzen hasi nintzen eta aurpegi txuria zuen, gero, nire aitari begiratu eta berdin zegoen. Amaren ondoan eseri nintzen eta oso gaixorik zeundela esan zidan eta aurpegiko irribarrean joan egin zitzaidan azkar-azkar. Tristura handia eduki nuen eta malkoren bat irten zitzaidan, baina tristura handiagoa eduki nuen, lau egun ondoren, amak esaterakoan hil

egin zinela. Orduan bai egin nuela negar. Ezin nuen sinestu, mundua nire gainera erori zen, suntsituta gelditu nintzen eta egunak eta egunak igaro nituen nire ohean negar egiten zuregatik, aitona.

Oraindik ere pentsatzen dut zutaz, egunero, gauero. Ohera joatera-koan, beti pentsatzen dut, munduan gehien maite nuen pertsonetako bat joan egin dela. Hasieran, beti zurekin nengoen eta orain zu gabe.

Bakarrik, nitaz oroitzea, gure une honetan pentsatzen egotea eta ni inoiz ez ahaztea espero dut, nik inoiz ez zaitudalako ahaztuko.

*Janire Torronteras*

## Zer moduz Benidormen, amama?

Amama!

Zer moduz Benidormen? Orain dela bi hilabete joan zinen, eta pare bat aldiz bakarrik hitz egin dugu telefonoz. Bueno, eta aurkitu al duzu zure printzipe urdina? Hara maitasunaren bila joan zinela esan zenigun, eta Paularen amamak esaten duenez, zu zinen kuadrillatik gehien ligatzen zuena... Beraz, segituan aurkituko duzu inoiz eduki ez dudana aitona. Zure ligatzeko "trukilloak" erakutsi beharko dizkizazu! A! Eta aurkitzen duzun gizona guapoa eta pertsona ona izan dadila, bestela ez du merezi-eta hainbeste denbora zu ikusi gabe egotea!

Asko botatzen zaitut faltan, zu eta zure kroketak, amak izoztutakoak bakarrik erosten dituelako. Ez zitzaidan batere inportako karta hau erantzutera-koan "tuper" bat kroketa ere bidaltzea...

Eta, hondartzara joan al zara? Hemen egun santu guztia euria eta euria ari du, eta ez dugu hondartzara joateko aukerarik. Gainera, hotz honekin, bikini ipini eta amak erosten dituen kroketak bezala geratuko naiz, izoztuta! Asko gustatuko litzaidake zu bisitatzera joatea, badakizu, elkarrekin hondartzara joateko, zure mutila ezagutzeko (aurkitu baduzu) eta hamar kilo kroketa jateko!

Gauzatxo bat... Gabonetarako hemen izango zara, ezta? Espero baietz, zu gabe afariak ez baitu batere graziaz. Gainera, aurten Asturiasko lehengusuak datoz, baina ez esan inori hau esan dizudala, berez sorpresa bat baitzen. Eta nahi badu, zure nobio berria ere ekarri, gure mahaian beti baitago plater bat gehiago jartzeko lekua!

Bueno amama, beste bi orri idatziko nizkizuke bi hilabete hauetan gertatutako gauza guztiak kontatuz, baina solfeoko klasera joan beharra daukat.

Muxu asko, eta erantzun karta e! Laster itzuli,

*Julia Ron*



## 450etik gora parte-hartzaile IV. San Silbestrean



Erantzun ezin hobe eman zitaion San Silbestre lasterketaren laugarren edizioari. Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak Debako Udalaren laguntzarekin antolatutako hitzorduan 455 parte-hartzaile bildu ziren (312 nagusi eta 143 gaztetxo).

Iker Lobo izan zen garaile gizonezkoetan (17 minutu behar izan zituen 5,2 kilometroko ibilbidea egiteko) eta Nora Mandiola, berriz, emakumezkoetan. Aipatutako bi irabazleak debarrak direnez, Debarra saria sailkapen orokorrean bigarren gelditu ziren Iñaki Sagarnak eta Mariaje Castrok eraman zuten.

Bestetik, urtea agurtzeko hondartzan bainua hartzera animatu zirenak ere ez ziren gutxi izan. Taldeko argazki dotorea atera zieten haie ere!



## 22 bikotek parte hartu dute Arrano Elkartearen ospatutako mus txapelketan



Arrano Elkartearen abenduaren 22an ospatutako mus txapelketan hogeita bi bikote aritu ziren lehian. Giro onean eta atseginean jokatu ziren partidak eta Palo II-Palo III.ak osatutako bikotea izan zen txapelduna. Txapelak ez ezik, arkumea eta bi botila ardo ere jaso



zizutzen sari gisa. Txapeldunordeak, berriz, Aitzol eta Bugi izan ziren -bi txuleta eta bi ardo botila irabazita-. Hirugarren postuan gelditu ziren Xabier eta Pele, bi gazta eta bi botila ardo irabazita; eta, laugarren postuan Txurruka eta Anzarella sailkatu ziren -bi



anana eta bi botila txanpan irabazita-. Bestetik, Arranoko Zuzendaritza Batzordeak jakinarazi du urtarrilaren 25ean, ostiralean, Euskal Herriko txapelketarako sailkapen fasea Arrano Elkartearen ospatuko dela. Gaueko 22:15ean hasiko da hitzordua.



# BERRIKETAN GAZTEA

2013ko urtarrila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

## KANBORA BIDAIA

Urtero bezala, Mendata BHIko 3. mailako ikasleak Iparraldera, Kanbora, joango gara eta haiek Debara etorriko dira trukea egitera.

Lapurdi barnealdeko udalerrria da Kanbo, 4.500 biztanle ditu eta Ezpeletako Kantonamenduan dago kokatua. Auzo nagusiak haiek dira: Eliza, Behereko Kanbo, Olhassoure, Termak eta Basaburu. Errobi ibaiak zeharkatzen du udalerrria. Bertako euskara nafar-lapurtera da.

Martxoaren 20an hasiko da trukea; lehenengo, kanbotarrak etorriko dira Deba ezagutzera. Hemengo eta Iparraldeko euskararen

egoera eta bi euskalkien arteko ezberdintasunak ezagutzea da trukearen helburuetako bat.

Guk Deba nolakoa den erakutsiko diegu, baita Lasturko auzoa ere. Apirilaren 18an, berriz, gu joango gara Kanbo ezagutzera.

Aurten, aldaketa batzuk egon dira. Iaz, bi egun izan ziren eta aurten egun bakarra izango da. Goizean etorri eta arratsaldean joango dira eta guk ere halaxe egingo dugu.

Gure ikuspuntutik, Kanbora joateak ilusio handia egiten digu, lagun berriak egiteko aukera ematen digulako eta Kanbo ezagutzeko aukera ere izango dugulako.







# elkarriketa

Gaurkoan Mikele Uranga (M.U.), Itsaso Iciar (I.I.), Nikolas Egaña (N.E.) eta Edi Christianekin (E.C.) egon gara, eta LHtik DBHrako aldaketei buruz hitz egin digute.

## “Nahiko aldaketa handia sumatu dut”



### Zer moduz doa lehenengo maila?

**M.U.** Nahiko ondo doa.

**I.I.** Besterik gabe...

**N.E.** Beno...

**E.C.** Ondo, beno...

### Aldaketa handia sumatu al duzue?

**M.U.** Nahiko handia.

**I.I.** Aldaketa ez da oso handia izan.

**N.E.** Bai, aldaketa handia dago.

**E.C.** Aldaketa gehiegizkoa da.

### Zein ikasgai gustatzen zaizue gehien?

**M.U.** Matematika eta Natur ditut gustuko.

**I.I.** Euskara da nire ikasgai gustukoena.

**N.E.** Matematika eta Musika ditut gustuko.

**E.C.** Matematika eta Gorputz Hezkuntza dira gustuko ditudanak.

### Zein da gehien gustatzen zaizuen irakaslea?

**Denek.** Ibon, Euskara irakasten duen maisua, da gure gustukoena!

### Zein da DBHn egotearen alde okerrena?

**M.U.** Goizeko 8:30ean eskolara sartu beharra.

**I.I.** Eskola aurrean dagoen aldapa amaigabea igotzea.

**N.E.** Kontrol asko ditugula da okerrena.

**E.C.** Kaka bat iruditzen zaidala.

### Eta DBHn egotearen alde onak zeintzuk dira?

**M.U.** Asteazken eta ostiraletan goizago irtetea da onena.

**I.I.** Nagusiagoak garela adierazi nahi duela iruditzen zait.

**N.E.** Ez dauka alde onik.

**E.C.** Maisuak asko aldatzen direla.

### Gazteenak izateak zer suposatzen du?

**M.U.** Nagusiekin egoteak lotsa ematen digu.

**I.I.** Nagusiagoak gutaz abusatu egiten dute.

**N.E.** Handiek abusatu egiten dute.

**E.C.** Putada bat da, txikienak garelako.

### Zer iruditzen zaizkizu jolas-orduak?

**M.U.** Asteazken eta ostiraletakoak oso motzak dira.

**I.I.** Luzeagoak balira, askoz ere hobeto egongo lirake.

**N.E.** Ez digute ezer egiten uzten.

**E.C.** Oso motzak direla iruditzen zait.



## GABONAK



**INKESTA**

**Oraingo honetan, gabonei buruzko galderak prestatu ditugu DBHko ikasleentzako. Ea zer iruditzen zaizuen!**

- 1.- Zer moduz pasa dituzu gabonak?
- 2.- Non ospatu dituzu?
- 3.- Ondo portatu al da Olentzero?
- 4.- Zer ekarri dizu?
- 5.- Zer nahiago duzu: Erregeak edo Olentzero?



### **Maite Iglesias:**

- 1.- Ondo pasa ditut.
- 2.- Deban ospatu ditut gabonak, familiarekin.
- 3.- Bai, ondo portatu dela iruditzen zait.
- 4.- Deportibak, dirua eta arropa.
- 5.- Olentzero nahiago dut, euskalduna delako!



### **Jon Amutxastegi:**

- 1.- Oso ondo pasa ditut.
- 2.- Amona eta izebaren etxean egon naiz gabonetan.
- 3.- Bai, ondo portatu da.
- 4.- Dirua ekarri dit...
- 5.- Erregeak nahiago, askoz ere opari gehiago ekarri dizkidatelako.



### **Maite Fernandez-Quejo:**

- 1.- Oso ondo pasa ditut.
- 2.- Madrilen eta Itziarren pasa ditut oporrak.
- 3.- Bai, oso ondo portatu da.
- 4.- La Voz-erako sarrera, dirua eta arropa.
- 5.- Olentzero nahiago dut, euskalduna delako.



### **Yenell Alceyay:**

- 1.- Oso ondo pasa ditut gabonak.
- 2.- Urretxun eta Legazpin pasa ditut.
- 3.- Bai, ondo portatu da.
- 4.- Dirua eta arropa.
- 5.- Erregeak nahiago ditut, hiru direlako eta opari gehiago ekartzeko dituztelako.



### **Agurtzane Valenciano:**

- 1.- Oso ondo pasa ditut.
- 2.- Falcesen eta amamaren etxean pasa ditut.
- 3.- Bai, nahiko ondo.
- 4.- Dirua eta arropa.
- 5.- Berdin dit, bietan farra dagoelako!




### **Josu Arufe:**

- 1.- Oso ondo pasa ditut gabonak.
- 2.- Amamaren etxean.
- 3.- Bai, nahiko ondo portatu da.
- 4.- Arropa eta dirua.
- 5.- Olentzero nahiago dut, euskalduna delako!



### **Beñat Escudero:**

- 1.- Oso ondo pasa ditut.
- 2.- Lasturko baserrian egon naiz.
- 3.- Oso ondo portatu da aurten Olentzero.
- 4.- Ehizako txalekoa, bizikleta...
- 5.- Olentzero askoz ere nahiago dut, erregeek baserrira ekartzen dizkidatelako opariak eta gutxiago edukitzen ditut.



### **Mikel Sagarna:**

- 1.- Ondo pasa ditut gabonak.
- 2.- Amamaren etxean ospatu ditut.
- 3.- Bai, beti bezala.
- 4.- Dirua ekarri dit.
- 5.- Erregeak nahiago ditut, opari gehiago ekartzen dizkidatelako.



# DenBora-pasak

## TXISTEAK

### \*HOGEI URTE ZAHARRAGO

-Hi.

-Zer?

-Harritzen nabena dok, hik ule zuria eta bizarra beltza eukitzia.

-Ez hadi harritu. Hik ez al dakik, uliak bizarrak baino hogeit hamar urte gehiago daukazena?

-...!

### \*FAKULTADIAK

Ni beti izan nok ibiltari ona. Behin batean hirurogei kilometroko dzangadzanga ibili nintzuan, batere ardua barik, niregatik gaizki esanda ebillen bati zaplateko batzuk ematera joateko.

-Eta, buelta be oinaz egin zenuen?

-Ez; kamillan.

### \*BALIENTIA

Txomin joan da Mikel Ubitxagana eta esan dio:

-Orduan, hi izan haizela nire andreari zaharra eta zatarra deitu diona.

-Bai! Eta, zer?

-Zorionak, mutil. Ze, ni ez nok sekula atrebitu holakorik esaten.



EGILEAK: JON ALBIZU, IRATZ FERNÁNDEZ, AITOR GONZÁLEZ ETA IMANOL SOBRADO

#### LAGUNTZAILEAK:



#### BABESLEAK:



Debako Udala



#### PRENTSA TALDEA 2012-2013

Naia Orbegozo  
Maria Aizpurua  
Jon Yarza  
Iratz Fernandez  
Imanol Sobrado  
Jon Albizu

Aitor Gonzalez  
Alex Treku  
Ane Garcia  
Nora Mandiola  
Iker Leiro  
Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Alberto Agirreazaldeg



## “ZUBELTZU” IV. BERTSO-PAPER SARIKETA



Lan bikaina egin dute Zubeltzu Bertso Paper Sariketan parte hartu duten guztiek. Udaleko Euskara Batzordeak eta Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketak erantzun ona eduki du laugarren edizio honetan. Irabazleen izenak Zoro Feri egunean ezagutu ziren udaltxeko Areto Nagusian, Urteberriko Feriaren egitarauaren barruan antolatutako ekitaldian. June Sudupe, Julia Ron eta Igor Larrañaga izan dira garaileak. Epaile lanetan aritu direnak, berriaz, honako hauek: Iñigo Izagirre, Ibon Aranberri eta Mikel Aizpurua.

Txikien atalean -2001. urtean jaiotakoak eta gazteagoak-, June Suduperen “Izurdea” lana izan zen epaimahaiari gehien gustatu zitzaiona. “Zortziko txikia, bete-betea. Ez sobran ez faltan ezer ez duen pieza ironiaz josia”, aipatu zuten bere lanaz epaileek. Maila honetako parte-hartzaileek bertso bat edo bi koplak egin behar izan zuten “Asteburuko plana egiten ari zarete lagunartean” gaiari helduta. Maila honetako bigarren saria Aloña Salegirentzat izan zen; eta hirugarrena, Goretti Unanuek lortu zuen.

Bigarren Hezkuntzako atalean, 1997 eta 2000. urteen artean jaiotakoak, Julia Ron izan zen garailea. “Mundu akaberari irudimenez egiten dio aurre Juliak. Hiru bertso polit hauetako kronologiak,

hilabetez hilabetez kontakizunak, lotzen ditu lurra-errealitatea eta ilargiamets salbatzailea”, adierazi zuen apaimahaiak bere lanari buruz. Atal honetan hiru bertso edo sei koplak idatzi behar zituzten parte-hartzaileek “Mundua abenduan bukatuko omen da” gaiaren gainean. Ekaitz Zubimendiri eman zioten bigarren saria; eta Itzale Lakaren lanak hirugarrena merezi izan zuen.

Igor Larrañagak irabazi zuen helduen atalean. Parte-hartzaileek gai librea zeukaten eta garaileak “Harritxintxarrak eta pota huts bat” izeneko bertsoak aurkeztu zituen. “Egileak 6 bertso sorko sorta hau bi ataletan banatzen du: krisiaren azalpen mingotsaren ondoren, itxaropena aurkitzen du egileak umeez duten mundu ikuskeran eta norberaren barruko duintasunean”, esan zuten epaileek.

Karlos Larrañagak bigarren saria eraman zuen “Arimaren isla” izenburupeko bertsoak aurkeztu ondoren; eta Josune Arakistainek, berriaz, hirugarrena “Segi aurrera” lanarekin.

Sariketara aurkeztutako lan guztiak liburuak batean bildu eta argitaratu dira aurten ere. Nolanahi ere, bertsoen bat aldizkariko lerro hauetara ekarri nahian, Igor Larrañaga irabazleak idatzitako lana hautatu dugu. Eskuineko zutabeetan duzue irakurgai.

**Sariketara  
aurkeztutako  
lan guztiak  
liburuak batean  
argitaratu dira  
aurten ere**

### “Harritxintxarrak ta pota huts bat”

I) Burutik ezin atera nabil  
latza bait da egoera  
lantoki asko bizi ezinik  
eta jendea kalera  
sustrai sendoak ongi errotu  
ditu krisiak gainera  
minbizi anker baten gisara  
zabalduez gizartera  
eta inortxok ez omen daki  
non dagoen amaiera

II) Hamaika dira hilabeteak  
pairatzen ari naizena  
erregulazio espedienteak  
itotzen baitit barrena  
baina badago jende ugari  
“eguzkitan astelehena”  
desjabetzeak eguneroko  
erritorik zitalena  
seme alabei laguntzarren  
etxea galdu duena

III) Agintariek saldu ziguten  
gezurra ta falazia  
eta ederki haunditu zuten  
batzuek irabazia  
Agintariek orain ordean  
denontzat kafe gazia  
egoera salatzen duenak  
hor dauka zai polizia  
batzun txontxongilo izatea  
al da ba demokrazia

IV) Bertso hauek idazten nintzela  
altxatu nuen burua  
edaldontzia erdi beteta  
ikusteko momentua  
umeen begiz begiratzeko  
gaur eguneko mundua  
harritxintxarrak ta pota huts bat  
gure alabaren hautua  
pozik bizitzeko ez baitugu  
garrantzitsua dirua

V) Ohartu naiz denbora gutxian  
izandako aldaketek;  
inguruan nozitutakoez,  
eta barne hausnarketez  
diruz pobreak izanda ere  
txit aberatsak balorez  
duintasuna, zintzotasuna  
itsasargi izan bitez  
nahiz “handimandi” bat baino gehiok  
jakingo duen hau nekez

VI) Askotan pentsatu izan ohi dut  
izan naizela ergela  
orain arte agindu dutenak  
gure ahotsa zirela  
sinistu nahi dut hau aldatzeko  
beranduegi ez dela  
bizitza beste modu batera  
ulertu genezakeela  
“Esperantzara kondenatuak”  
Garik zioen bezela

(\*Doinua 1, 2, 3: Gure aurreko guraso zaharrak  
\*Doinua 4, 5, 6: Esperantzarik gabeko zenbait)



## Birziklatutako materiala erabili dute gabonetako apaingarriak egiteko

Aurtengo gabonetan, ohiko argiekin batera, birziklatutako eta berrerabilitako materialekin egindako apaingarriak jarri ditu Udalak Debako eta Itziarko kaleetan. Apaingarri horiek Mendata eta Luzaroko ikasleek, Egunekeko Zentroko erabiltzaileek eta Arbil elkarteko kideek egin dituzte, plastikozko poltsak, botilak, edalontziak eta CDak berrerabiliz. Etxeetatik, Mendata ikastetxearen bitartez, eta herriko jatetxeen eskutik lortu da material gehiena. Hondakinak murrizteko helburua duen jarduera honek Debegesaren laguntza izan du. Udaletik jakinarazi dutenez, urte berri honi begira ere gabonetako argiak pixkanaka kentzea izango dute helburu, betiere energia-kontsumoa aurrezteko.



## Harrera ezin hobea Olentzero eta Mari Domingiri



Urtero bezala, abenduaren 24ko eguerdian plaza zaharrean zegoen jarrita hitzordua Olentzero eta Mari Domingirekin, eta ez zuten huts egin. Periko astoa lagun zutela jaitsi ziren Debara eta plaza zaharrean bildutako herritarrek gabon kantak abestuz egin zieten ongietorria. Beste urte batzuetan baino eguraldi hobea izan zen oraingotan eta jendetza izugarria bildu zen hitzorduan. Kalejiran parte hartzeko aukera izan ostean, salda beroaz eta txorizoaz gozatzeko tarterik ere izan zuten guztiek. Olentzero eta Mari Domingirekin solasean aritu ziren haurrak ez ziren gutxi izan eta, bide batez, noski, hainbatek etxetik idatzita ekarritako gutunak ere eman zituzkieten. Bisitari magikoekin batera, txikien irribarre eta emozioak izan ziren protagonista nagusi. Hori guztia ez litzateke posible izango, dena den, jendearen borondateari eta guztien elkarlanari esker ez balitz. Beraz, eskerrik asko guzti-guztiei!

## Gaztelekua gabonetan



Gabon zaharretan, ate joka ibili ginen herri osoan zehar gabon kantekin etxeetako jendea alaitu asmoz! Soinu, pandero, saxofoi, tronpeta eta klarinete soinuak josi genituen gure ahotsak. Eskerrrik asko gu entzuten egon zineten guztioi!



Hona hemen izotz jauregiko errege eta erreginak. Oso esperientzia ezberdina eta dibertigarria!



Aurten izugarritzko tamaina hartu digu Deba Cup futbol txapelketak. Kanpoko herrietatik 13 taldek eman zuten izena, eta Debako zazpi taldek ere hartu genuen parte. A ze jendetza Errotazarren!! Zorionak antolatzaile izan ziren 4. DBHko gazteei! Lan bikaina!!



Begarako gazteek gonbite tentagarria pasa, eta lagun arteko partidu ederra jokatu genuen beraien herrian.



Gaztelekua zabalik zela aprobetxatuz, futbolin txapelketa ospatu genuen. Amore eman behar izan genuen guztiok Nora Mandiola eta Ane Feijooen kalitatearen aurrean. A ze egurra ematen duten neska hauek. Zorionak txapelduneei!



Zinefilo guztien ahotan dabilen "Hobbit" pelikula ikustera joan ginen Hurbilera eta abenturaz beteriko 3 ordutako filma ikusi genuen. Aholkatzeko modukoa benetan!

Gaztelekuko hezitzaileak



## Julen Gorritiren eta Gorka Barojaren muralak Itur kalean



Simon Berasaluze eta Foruen plaza batzen dituen kaleak itxura berritua eskaintzen du orain; **“Hondakinak kolorez kolore, denontzat hobe”** leloa ardatz hartuta, Debako Udaleko Ingurumen Sailak antolatutako mural lehiaketaren emaitza da. Muraletako bat Julen Gorritirena da (goian, ezkerrean) eta bestea, berriz, Gorka Barojak sortu du.

Bi kategoria izan ditu lehiaketak -18 urtetik beherakoentzat bata, eta 18 urtetik gorakoentzat bestea-, eta guztira zazpi lan egon dira lehian. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, parte-hartzaileek “lan politak eta nahiko maila altukoak” aurkeztu dituzte.

Epaille lanetan herritarrak aritu dira (haurrak nahiz helduak), abenduaren erdialdean udaletxeko arkupetan izandako bozketaren bitartez. 18 urtetik beherakoen kategorian Julen Gorritik irabazi du zuzenean, berea izan baita maila horretan aurkeztutako lan bakarra. Nagusien atalean, berriz, Gorka Barojaren lana saritu dute herritarrek, 155 boto emanda (boto guztien %62,5a, hain zuzen ere). Gorritik Haitz Haundi Pintura Elkartearen laguntza izan du bere murala margotzeko eta Barojari laguntzen Gazte Asanbladako kideak aritu dira. Irabazleek herriko jatetxe batean gastatzeko 120 euroko bonoa jaso dute.

## Ander Korkostegik irabazi du Animadeba jaialdiko gortina lehiaketa

Animadeba 2013 animaziozko zinema jaialdirako gortina lehiaketan, epaimahaiak sari nagusia Ander Korkostegi donostiarrari eman zion, “Mikrodeba” lanarengatik (<http://www.youtube.com/watch?v=hMGQe3i-Q6I> helbidean ikus dezakezue). Animadebaren bosgarren edizioa ospatu zen abenduan, eta film ezberdinen emanaldiez gain, erakusketa bat ere antolatu zen jaialdiaren egitarauaren baitan. Arte Ederretan lizentziatua den Isabel Herguera donostiarraren lanak egon ziren ikusgai Agirre Jauregian, “Bidaia koadernoak” izenburupean (beheko irudian, eskuinean). 2005eko urrian hasi eta 2010eko apirila bitartean, Indian igarotako egonaldietan eginiko marrazki eta collage-ak aurkeztu zituen bertan; “forma libre eta intuitibo batean, bidaian izandako inpresioak kuaderno batzuetan bilduta, mural/collage-a zuzenean horman eraikia, margo, kuaderno zati, objektu eta soinuen bidez”.



## Patxi Aldabaldetrecu Bekak badu irabazlea

Roque Aldabaldetrecuk, Felix Irigoyenek, Jose Maria Izagak eta Javi Castrok osatutako epaimahaiak abenduan aukeratu zuten Patxi Aldabaldetrecuren omenez bi urtean behin ematen den bekaren irabazlea.

“Remedios naturales y técnicas curativas de la zona de Deba-Itziar” izenburuko proposamenaren aldeko erabakia hartu dute; María San Juan González da bekaren irabazlea. Epaimahaiaren esanetan, proposamenik “interesgarriena” saritu dute, gai horren inguruan ez baita antzeko ikerketarik burutu gure herri inguruan. Irabazleak 4.000 euroko saria lortu du, eta bere lana egiteko bederatzita hilabeteko epea izango du.

Debako Kultur Elkarteak antolatutako bekak Debabarreneko historiarekin, arlo sozio-kulturalarekin edota naturarekin zerikusia duten lanen ikerkuntza bultzatzeko helburua du, eta, emaitzak “Deba Bilduma” izeneko liburu-sortaren barruan argitaratu ohi dira gero.

Epaimahaiak jakinarazi duenez, aurtengo deialdira bi lan baino ez dira aurkeztu. Maialen Alkorta Idiaez izan da beste hautagaia, “II. Industria Iraultza Debabarrenean. Energia iturri berriek eragindako aldaketak ekonomia eta gizartean” lanarekin.

## Geoparkearen bideo promozionala

Euskal Kostaldeko Geoparkeak bideo promozionala egin berri du lurralde honek eskaintzen dituen erakargarritasun natural, kultural, geologiko eta turistikoak ezagutzera eman eta zabaldu asmoz. Bertako paisaia-dibertsitatea eta turismo eta aisialdirako proposamen ezberdinak erakusten ditu bideoak.

Ikusentzunezkoak lau minutu inguru irauten du. Bertan, Geoparkeko toki esanguratsuenak azaltzen dira, baita lurraldearekin harremana duten hainbat lagunen adierazpenak ere, lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa). Halaber, bideoaren grabazioan zonaldeko hainbat boluntario eta sektore turistikoarekin lotutako enpresen parte-hartzea izan dute.

Lana Alberto Gorritiberea zine zuzendari zumaiarrak zuzendu du eta musika Bingen Mendizabal konpositore ezagunarena da.

Bideoa ikusgai da dagoeneko Geoparkearen webgunean, [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com)-en, eta baita Youtube-ko kanalean ere.



## Agenda

## Urtarrilak 25, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko elkarretaratzea, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

-22:15. Euskal Herriko V. **Mus Txapelketarako sailkapen fasea** jokatu da, Debako Arrano Elkartearen (txapelketako final nazionala Agurainen izango da, martxoaren 9an).



## Otsailak 3, igandea

-San Blas eguna.

## Otsailak 4, astelehena

-Santa Ageda bezpera.

## Otsailak 8-12

-**Inauteriak 2013.** Egitaraua ohiko bideetatik ezagutaraziko da.

## Lehiaketak

-V. **Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa.**

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu besteez.

Informazioa eta oinarriak: [www.elkar.com](http://www.elkar.com) atarian.



## Ikastaroak

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu urtarrilean (goizez) eta otsailean (arratsaldez): Bilatzaileak, Kronikoen Sarea, eOsasun (Osakidetzaren onli-

ne zerbitzuak), Flickr eta bere tresnak, OpenOffice Impress... Izena emateko, kontsultatu [www.kzguna.net](http://www.kzguna.net) edo deitu 943 02 36 29 zenbakira.

## Korrika Kulturala

Korrika Kulturala urtarrilaren 26an hasiko da, Usurbilen euskara ikasleei egingo zaien omenaldiarekin. Euskalduntzen eta alfabetatzen diharduten milaka eta milaka lagunak omendu eta

protagonista bilakatzeko asmoz, Korrika 18k egun horretan **txotx erraldoia** prestatu du. Horrez gain, egun osorako egitaraua antolatu da. Informazioa: [www.korrika.org](http://www.korrika.org).

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: TEL. 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890**

**22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat gardian.**  
**09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita** dauden bitartean, aste osoan zehar, **guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikan.**

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
**9:30 - 13:30**

**OHARRA:**  
**Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera** Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurtten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.






OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS**  
**Uzuri**

ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel-faxo: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
**Taberna**  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guzitian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 818 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokazin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

Informátika **JL** Elektronika

Tresneria informatikoa Osgai elektronikak

Maxpe kalea, 7 - Behea  
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Fax: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jl@informatikajlelektronika.a.telefonica.net

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

## MATRIKULALDIA ZABALIK

Izena emateko epea  
otsailaren azkenera arte.

Etor zaitez eta informazio  
guztia emango dizugu.

Ifar kalea 12 - Telf: 943 19 22 36  
debabe.deba@telefonica.net



# Nik maite dut euskarara

## Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzza**  
943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)